l e z a m a b i z i r i k
herri aldizkaria +++ Otsaila 2013 Febrero



Aprobacion Inicial al PGOU :
LA GENETICA COMO ARGUMENTO

FRACKINen OIHARTZUNAK LEZAMATIK GERTU

Aurrekontuak, Diru laguntzak,
HAPO.....UDAL BATZARRATIK BERRI ONIK EZ

14 ABRIL LEZAMA BIZIRIK EGUNA

KORRIKAREKIN BAT

LEZAMA BIZIRIK ERROLDATUTA UDALEAN



# APROBACIÓN INICIAL AL PGOU DE LEZAMA: ¿LA GENÉTICA CONTRA LA RAZÓN?

Es difícil justificar desde la lógica o la razón como alguien puede destinar 600.000m2 de sus mejores tierras para poner polígonos industriales cuando lleva años perdiendo las industrias que tenía en su polígono de Kurutze, en cuya urbanización por cierto ha enterrado ya más de medio millón de euros de sus convecinos.

Y qué decir de planificar la construcción de 500 nuevas viviendas en un pequeño pueblo donde sólo hay 1.000 construidas, de las cuales una 200 se encuentran vacías. Si además parte de esas nuevas viviendas se proponen en suelos inundables el asunto raya el esperpento..

Ni desde la lógica ni desde la razón puede entenderse esto , mucho menos cuando estamos viviendo la mayor crisis económica , y por supuesto inmobiliaria, de al menos los últimos cincuenta años y cuando todo quisqui, sea persona , empresa o institución, están en plena revisión de los planteamientos desarrollistas que estaban de moda hasta hace sólo unos años.

La alcaldesa de Lezama se ha pasado 7 años diciendo que la calificación industrial gigante era “una imposición del PTP”. Cuando la Diputación ha dicho públicamente que no es necesaria se ha quedado sin ningún argumento pero sigue sin rectificar ni una coma de sus planes urbanísticos desarrollistas , a pesar de las anulaciones judiciales y a pesar , sobre todo, que la realidad del año 2013 ya no es la de hace unos pocos años.

Pesábamos que rectificaría pero hemos vuelto a pecar de ingenuidad. En el pleno del 30 de enero la alcaldesa huérfana de argumentos para justificar la Aprobación Inicial de un PGOU que es una copia empeorada si cabe de las Normas Subsidiarias del 2007, posteriormente anuladas, se sacó de la chistera el mismo argumento que ya intentó utilizar con el malogrado Plan Txupetxa:
**la genética.**

Según explicó, el tener de aquí sus antepasados y ser ella misma hija de Lezama, le debe aportar un don especial para adivinar qué es lo mejor para "su" pueblo y sus convecinos. Es decir, como es "su pueblo y el de sus antepasados", quizás piensa que está legitimada para imponer cualquier proyecto aunque éste sea una auténtica barbaridad.

***P.D.:** Una vez publicada en el BOB del 7 de febrero la aprobación inicial , ha comenzado a correr el plazo de 45 días para presentar alegaciones. La documentación está en el ayuntamiento donde se puede consultar. Lezama Bizirik, como siempre, participará y ofrecerá toda su colaboración con quien quiera un futuro mejor para Lezama y todos y todas los lezamarras, circunstancias genéticas aparte.*

Ante argumento tan demoledor, la razón, y la lógica están de sobra. En Lezama, señores y señoras , el desarrollismo y la especulación no están en crisis, lo ha dicho la alcaldesa.



# FRACKINGen OHIARTZUNAK LEMOATIK ENTZUTEN DIRA






Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA –SHESA- enpresak SAIA izeneko hidrokarburoen ikerketa baimena lortu du –abenduaren 4an Eusko Jaurlaritzak emanda- eta laster batean hasiko da LEMOAN bertako azterketa geofisikoa egiten.

Enpresaren arabera "…helburua da lurpean formazio jurasikoak dauden ziurtartzea eta hala bada, haien egitura ezagutzea" "…ikerketa programan ez da haustura hidraulikoaren bidezko lanik aurreikusten, . aurrerantzean zundaketaren bat egitea egokitzat jotzen bada ere" Hala bada, behin hasiz gero zeinek jarriko dio frenoa? Alemanian eta Frantzian jadanik debekatuta dago teknika arriskutsuegia izateagatik.

**JURASIKOA, DINOSAUROAK =PETROLIOA, GASA = HAUSTURA HIDRAULIKOA EDO FRACKING**

Berri Laburrak
Asken Udalbatzarratik Urtarrilak 30

# Garrantzi handiko hiru gai tratatu ziren batzarrean

**HAPO Plangintzaren Hasierako Onarpena, lehengo lepotik burua**

Aspaldiko gai polemikoa da eta batzarrean berriz nabarmendu dena; izan ere garrantzi handiko erabakiak hartuko dira Lezamaren etorkizunaz. Zenbat etxebizitza eta zenbat lur industriarako behar diren erabakitzeko orduan bi jokabide ezberdin nabarmen dira udaleko alderdi biren artean
Alkate andereak Bildukoei katastrofistak deitu diete, hauek berriz Pnvkoek direla katastrofistak, neurri gabeko industrialdez eta etxebizitzez Lezama josi nahi dutelako.
Dena den argudio pobrea deritzagu alkateak erabilitakoa, Lezamarentzat onena gura dutela, bere familia eta bera betiko lezamarrak direla adieraztean. Antza denez , bertan jaiotakoak herri-maitaleak dira genetikoki eta besteak trasplanteren bat egin beharrekoak. Hau falta zitzaigun argumentu lotsagarria! Lezaman desarrollismoak eta espekulazioak genetikan omen daukate zioa.
Pnv-n botoekin aurrera doa Hasierako Onarpena. Epe bat zabalduko da, 45 egunekoa, alegazioak egiteko. Herritarrok hor dugu aukera, azkena, informatzeko, eztabaidatzeko eta zelako Lezama gura dugun adierazteko. Espero dezagun alegatzeko zer RHa dugun adierazi behar ez izatea!

**2013ko Aurrekontuak…betiko kontua.**

Jakina da urteko aurrekontuak direla udal baten ardatz nagusia, zeren hor erabakitzen da zelan banatu diruak eta nahiz eta gastu asko finkoak izan, beste batzuei erabilera ezberdina eman diezaieke.
Gaurkoan Bilduko zinegotziak, puntu hau zerrendatik kentzea eskatu du eta hurrengo batzar baterako uztea, behar zuten informazioa berandu eman zaielako.
Alkatesak ezetz , bozkatu behar dela, eta Bilduko bost zigotziak kanporatu dira, bozketan parte hartzerik nahi izan ez dutelako..
Beraz Pnv-ko botoekin soilik onartu dira aurtengo aurrekontuak. Zaharrak berri., zoritxarrez.

**Elkarteen dirulaguntzak: Ordenantza bikoitza. Zertarako?**

Orain arte Udalak ez du izan 2003tik legeak agintzen duen moduko ordenantzarik elkarteei dirulaguntzak emateko, ez eta irizpide argirik laguntzak banatzerakoan eta, zenbaitzuen ustez, mendekuz ere jokatu izan da elkarte batzuekiko
Ordenantza bakarra elkarte guztientzat Bildukoek planteatu dutena, eta ordenantza bi Pnv-koek, bata kirol elkarteentzat eta bestea kultur elkarteentzat.
Ordenantza bi egiteak orainarteko jokabidea errazten duela dirudi.
Ez da akordurik izan eta Pnv-ren botoekin onartu da. Susma daiteke ordenantzak, behar zen baino hamar urte beranduago “legalizatu” izatea be, ez duela tratu berdintsua eta gardentasuna bermatuko herriko elkarteekiko..




# EMAN EUSKARA ELKARRI

**MARTXOAREN 21EAN**

**Udaberria eta.......KORRIKA!!!**

Korrika 18aren leloak Eman euskara elkarri dio, euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako. Elkarri hitz egiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko.

2013ko martxoaren 14an Andoainen, hain zuzen ere, hasiko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia. 11 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hamazortzigarrenez, martxoaren 24an Baionara heldu arte.

Aurkezpena Txorierrin Otsailaren 22an Zamudion izango da eta gure herritik, Martxoaren 21ean, arratsaldean, pasatuko da. Gure elkartetik lasterketa berean zein bailaran antolatuko diren jarduera guztietan parte hartzen animatu nahi zaituztegu.

## UDALEKO ATEAK ZABALIK LEZAMA BIZIRIK-ENTZAT ERE?

Sei urte bete dira Lezama Bizirik Auzo Elkartea sortu zela.

Elkarteak dituen helburuak eta egindako lanaz jakitun gara lezamarrok, bere ibilbidea gardena izan delako, egindako jarduera eta ekintzen berri unean unean herritarroi aditzera eman izan digulako: giza balioak defendatuz, natur eta kultur ondasunak aintzat hartuz, beti ere gure inguruaren nortasuna errespetatuz.

Dena den, ez gara denon gustoko izan, zeren agintean dagoen udal taldeak (PNV), oraintsu arte ez gaitu erregistratu elkarteen zerrendan.

Gu ostera hasieratik gaude erregistratuta Eusko Jaurlaritzan eta hainbat bider joan izan gara udaletxera herriko beste elkarteek dituzten baldintza eta onurak (subentzioak e.b.)

OHARRA JASO DUGU UDALARENGANDIK GAURTIK BADITUGULA ATEAK ZABALIK
TALDEKIDE GUZTIOK JARRI GARA POZIK
INDAR BERRIZTATUTA
"LEZAMA BIZIRIK"



jaso ahal izatea eskatuz; baina beti aitzakiaren bat: paper bat falta dela edo karnet kopia, lista gaurkotu behar dela edo okerrena, erantzunik ez, jaramonik ez. Beti ere beste elkarteei eskatu ez zaiena guri exijituz.

Azkenean, alkate dekretu batez Lezama Bizirik Elkartea onartua izan gara eta udal erregistroan inskribitua beste elkarteak bezala.

Kontziente gara herriko arazo batzuekiko ditugun irizpideak eta udal gobernuarenak ez datozela bat, baina onartezina dela deritzagu herrigintzan lehenago izan ahal genituen jokabide ezberdinengatik, hain tratu baztertzaileaz zigortuak izatea.

Hala ere, aurrerantza jarraituko dugu elkarlanean herriko beste elkarteekin eta udalarekin; izango ditugu aukerak zenbait arlotan batera jokatzeko, eta gure ustez jokabide desegokiak direnen aurrean kritikoak izateko ere.








Gorde zure agendan data hau :
APIRILAK 14.
Egun horretan aurtengo LEZAMA BIZIRIK EGUNA ospatuko dugu. Goizean Lezama eta Larrabetzu arteko ZIN-BIDEtik ibiliko gara eta leku aipagarri batzuk bisitatuko ditugu. Gero denentzako bazkari goxoa prestatuko dugu Goitioltzako Txokoan.
Erreserba egun hori Lezama Bizirik elkartekidekin pasatzeko!

Apunta esta fecha en tu agenda :
14 DE ABRIL
Ese dia celebraremos el LEZAMA BIZIRIK EGUNA.
Por la mañana andaremos por la RUTA JURADERA entre Lezama y Larrabetzu visitando algunos lugares de interés. Luego en el Txoko de Goitioltza prepararemos una comida bien rica para quien se anime. . ¡Reserva ese día para pasarlo con Lezama Bizirik!